



**EKAITZA ETA BESTE 34 IPUIN**  
KATE CHOPIN

Itzultzailea: Joxe Mari Berasategi.  
Argitaletxeak: Erein eta Igela.  
Orrialdeak: 384. Prezioa: 20 euro.

## Isilpeko erresistentzia

Erein eta Igela argitaletxeak indarrak batu eta Literatura Unibertsaleko obrak euskaraz ezagutarazteko ahaleginari ekin diote. Hala, Kate Chopinen 35 errelato aurkeztu dituzte, Joxe Mari Berasategik euskaratuta. Chopinek emakumezkoa narrazioen erdigunean jartzen badu ere, ezin da hartu feminismoaren militantetzat. Aitzindariatzat, akaso. Gizonaren itzaletik urrunduz emakumeek bizitza propioa eraikitzeko eskubidea defendatzen zuen. Idazleak berak jaso zituen kritika gogorrak bere kontakizunetan emakumeen bizitzaz –desioez, sexualitateaz, dibortzioaz– idazteagatik.

Ironia eta iradokizunerako

joera agerrarazten ditu emakumezko pertsonaiak kokatzean XIX. mendearen bukaerako Estatu Batuetan, hegoaldekoetan hain zuzen. Protagonisten barne desioen eta pentsakizunen disekzioa egiten du detaile zein keinu minimoei arreta emanaz. Hartara, istorioetako emakume horiek ezaguna eta barneratua duten bizimodua apurka-apurka azaleratuz doa barruan sentitzen duten oldarrak kanpoko itxurarekin talka egiten duen bitartean. Izan ere, konturatzen dira gizartearen konbentzionalismoen agindupean ez dutela zorionik dastatu ordura arte.

Halaber, interesgarria da nola hurbiltzen den emakumezko ikuspegira epaitu gabe, modernitatearen kutsua emanaz; nahiz eta protagonistek egindakoa gaizki dagoela j-akin, ez dute errudun sentimendurik, askatasunari eta desirari mugak ezin baitzaizkio jarri ('Ekaitza'). Desio horrek nahiezak ekar ditzakeen arren, gizartearen kode zurrundetatik at, bizirik daudela sentitzen dute lehenengo aldiz. Alde horretatik, esan dezakegu transgresioa isilean gertatzen dela, kanpoan egunero iruditeriak baitirau... ezer gertatu ez balitz bezala. Alabaina, pertsonaien eraldaketa sotilaren lekuko bihurtzen gara kontakizun zirrargarri haue-tan. **P. RODRIGUEZ-MIÑAMBRES.**